

GIPUZKOAKO BAZKUNDEAK TXINARA JOATEKO MISIO KOMERTZIALA ANTOLATU DU

Donostia - 2017ko irailaren 15a - Txinara joateko misio komertziala Gipuzkoako Bazkondeak antolatzen du, Arabako eta Bilboko Ganberekin batera eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapena eta Azpiegiturak Sailaren laguntzarekin.

Misioa irailaren 18a eta 22a bitartean egingo da eta 9 enpresek parte hartuko dute: 3 gipuzkoar, 5 bizkaitar eta arabar 1. Euskal enpresak ordezkatzan dituzten 9 enpresak harreman komertzialak estutzeko helburuarekin joango dira Txinara.

Txina

Txina munduko bigarren ekonomia da EEBBen atzetik eta Asiako %69ko BPG izaten jarraitzen du, Japonia kontutan hartu gabe. 2016an, BPG erreala urtetik urterako %6,7^a hazi zen (%6,9^a 2005ean), 25 urtetan Txinako ekonomian eman den hazkunde tasarik txikiena da, nahiz eta %7ko helburu ofizialaren barnean jarraitzen duen. 2017 eta 2018rako NDFaren eta ELGEaren hazkunde tasaren aurreikuspenek %6,5koa eta %6koak izango direla adierazten dute hurrenez hurren. Moteltze hau hazkunde patroia aldatzeko 2013 amaieratik aplikatzen ari diren berrikuntza estrukturalen ondorioa da.

Euskal Autonomi Erkidegotik Txinara egindako esportazioek 2016an hasieraldiarekin jarraitzen dute, Arabako automobilen esportazioei esker eta Gipuzkoako ekipamendu-ondasunen esportazioen hobekuntzari esker. Honek Txinarako euskal esportazioen %10,9ko igora suposatzen du 2017ko lehehengo sei hilekoan, 2016ko epe berdineko esportazioekin alderatuz.

Esportazioak			
2017ko ekaina arte		2016ko ekaina arte	
Probintzia	balioa (mila eurotan)	Probintzia	balio (mila eurotan)
ARABA	115.954,96	ARABA	115.733,61
GIPUZKOA	119.856,42	GIPUZKOA	108.348,92
BIZKAIA	48.443,75	BIZKAIA	32.201,60
	284.255,13		256.284,14

Esportazioak. Txinarako esportazioen garapena (mila eurotan):

	2013	2014	2015	2016
Gipuzkoa	267.081	347.086	216.386	230.211
Euskadi	495.932	635.745	441.629	530.092

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irene Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347